



Zoonosien joerak eta iturriak, 2016. urtea

EFSA (<https://www.efsa.europa.eu/>)k eta EGDC (<https://ecdc.europa.eu/en/home>)k argitaratu berri duten txostenaren arabera, iazko datuekin erkatuz gero, **gora egin dute *Salmonellaren*, *Campylobacteren* eta *Listeriaren* kasuen kopuruak**. Txostena 2016an Europar Batasuneko 28 estratu kideek bildutako datuetan oinarritzen da.

Elikagaien bidez transmititzen diren gaixotasunen agerraldiei buruzko jakinarazpen gehixeago egin dira 2015ean baino. Hala ere, zifra hori 2010ean eta 2016an Europar Batasunean jakinarazitako agerraldien batez bestekoaren nahiko antzekoa da.

Salmonella

Elikagaien bidez transmititzen diren *Salmonella* agerraldi eta salmonellosi-kasu gehien eragin duen *Salmonellaren* serotipoa *Salmonella enteritidis* izan da. EBren zaintza eta eskortako hegaztiak kontrolatzeko neurriak ezarri zirenetik, hau da 2007tik, kasuen kopuruak etengabe egin du behera. Hala ere, **azken urte honetan ez zaio beheranzko joera horri eutsi**.

*Salmonella enteritidis*aren prebalentziak gora egin du oilo erruleetan, % 0,7tik % 1,21era 2014az geroztik. Epe horretan bertan, **gizakietan detektatutako kasuek % 3 egin dute gora**. Igoera hori EBn duela gutxi izandako agerraldien ondorio da, eta horrek adierazten du ezinbestekoa dela arriskua kudeatzeko neurriak hartzen jarraitzea.

2016an, gizakien 94.530 salmonellosi-kasu jakinarazi dira EBn, eta horietatik **% 59 *S. enteritidis* eragin ditu**. Kasu horiek, nagusiki, honako elikagai hauen kontsumoarekin lotzen dira: arrautzak, arrautzez eginiko produktuak eta hegazti-haragia.

Campylobacter

Campylobacter da elikagaien bidez transmititzen den eta gizakietan kasu gehien eragin duen patogenoa. 2016an, 246.307 pertsonatan detektatu zen, hau da, **2015ean baino % 6,1 gehiago**. Oilasko-haragian *Campylobacter* ugari dago; hortaz, arriskua kudeatzeko neurrien helburua kontzentrazio hori murriztea izango da.

EBn kasu asko detektatu badira ere, pazienteen % 0,03 baino ez dira hiltzen.

Listeria


2016an, 2.536 kasu jakinarazi ziren, **2015ean baino % 9,3 gehiago**. Infekzio horiek, oro har, aurrekoak baino larriagoak dira, eta kasuen % 97 ospitaleratu egin behar izan dira. Guztira 247 heriotza-kasu jakinarazi ziren; gehienak 64 urtetik gorakoak ziren, eta horien heriotza-tasa % 18,9koa da. Adinean aurrera egin ahala, gora egiten du heriotza-tasak: 84 uretik gorakoen artean % 26,1ekoa da tasa. Horrenbestez, adinduenek osatzen dute arrisku-talde nagusia.

EBn kasu asko detektatu badira ere, pazienteen % 0,03 baino ez dira hiltzen.

Elikagaiek eragindako agerraldiak

Salmonella izan zen elikagaiek eragindako agerraldien arrazoi nagusia (% 22,3), eta ospitaleratze eta heriotza gehien eragin duena (agerraldien ondoriozko ospitaleratze-kasu guztien % 45,6 eta heriotza-kasu guztien % 50).

Zoonosien joerak eta iturriak - EFSA/ECDC (<http://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.2903/j.efsa.2017.5077/epdf>)



Necesario siempre tenerlo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 . berri@elika.eus
(<mailto:berri@elika.eus>)